

ONELAKOAK ZIRAN

Por FERNANDO ARTOLA
«BORDARI»

Gipuzkoarrok, Alkate deitzen diogu. Beste izenak ere baditu euskal-errietan; auzapez, endore, baldernapez... Yaun-mera. Guretzat, beraz, Alkate Jauna. Arabetarren «al cadi»'n (epailaria) omen du sustraia. Aalmen aundiak zituala erri-agintari bezela, gauza nabaria da. Ikus dezagun alaere.

Ondarribia, nere sor-lekua, itxas-bazterreko uri apain bat duzu. Bidasoa ibaiak ongi ezagutzen du. Ondarribik eta Ondarraizuk egiten bait diote, engi-etorria itxasora doanean; bere-bat, azken agurra... eten gabeko diosala. Bidasoa iltzen dalarik... beti, bizi-bizi dago.

Azken oatzea, erratillu zabal antzekoa, alditan urez betea ikusiko duzu; bestetan, dana ondartsu. Itsasoaren jua-entorriak (illargiarekin zer ikusia dutenak) dira manatzalle. Ondarribiak, ondar-bidea esan gura luke.

ZATIKETA

Ortziok pa! Mundua deño... *au neretzat!*, lurralde zatiketa ta banaketa dakusgu nunai. Berdin emen ere: ontasun-lapurretak, bereizketak, garaitzak, auziak,... gudateak. Eta gure arbasoak, uste-gabean atzearen mende, arrotzen eskutan erori. Dana dala; mendi arteko gatzaga, padura edo iiztokia; guzia igel, dana aingira, sastrapa ta aintzira zan. Antzarak, ateak, kurlinkak, kaio ta marlaxkak toki erosoak, berdin gabea. Bide batz milla-milloika eltxo, ta auen garbitzalle, udaran, millaka ainara, ta bestalde orain baño martin-txori geiago.

Dana-dala, diot berriz ere; *Oneraño nere!* Zaintzeko, esi, arresi, gazteluak oiñarritzeko leku aparta. Eta jakiña, Ondarribia egundoko arresiz inguratu zuten—oraindik diraute—bear zanean gogor eusteko. Beraz, Ondarribia gualtegi bat zan, bortizki sendotutako gaztelu-uri bat.

Nijoan esatera. Edestia ar beza, zeatz eta meatz eta izenez orniturik gauzak jakin nai dituanak. Nere lantxo onetan esan nai dut 1638 garrean prantzez gudarosteak Ondarribia esitu zuela; ta itz bitan kontatu ere orduko Alkate Jaunaren jokabide kementsua; suarra ta gaingañekoa, alderdi guztietatik begiratuta.

GUDATEA

Illabetetsu-bi zeramazkiten esituak... Sua, negarra, dunbatekoak, balak... *Guda!* Arresiko ate guziak, bat ez beste danak, arriz ondo tolestatuak. Ate ireki zitekeana, aren giltza On Diego de Butran'en eskuetan. Onela zuen izena Ondarribiko alkateak. Gizonak erne gezi-leioetan, zirrituetan. Orain ezezik, emakumeak gizon jantziaz, armak eskuetan. Erri guztia zutiñik! Mina-zuloak emen, dinamita lertzea an, benetako sutegia; ta beti bezela, zaurituak, elbarrituak, erioa, negarra. Ortzak eta ukabillak estu gudalburuak, gudari zintzoak jarraitzalle. Etsaia garai-bidetan, eta ostikada artu ta ondoren... Perez-Egea aserre bizian; goazen! au egin bear degu. Eta Alkate burutsuak esan; —Gaizki jokatzera zoaz; egun-txintan gaude ta ortarako berandutxo da, utz zazu biyarko. Agintzen duenak manatzen du; ta an jua zan ankar gora beste eun eta geiago gudariekkin batean. Arresi barruetan danak dardaraz; jatekorik ez, eta ez eta berunarik ere balak egiteko.

NORTASUNA

Une larriak eta Gudari-buru-biltzarrean... etsipena. Gureak egin du! Etsaia nagusitu zaigu... berunarik ere ez degu gure izkilluentzat! Eta Alkate ta gizona zanak, oju.



«Nik ez dakit gure irauteak nun daukan muga. Balak faltatzen diranean, zillarra, nere zillarra fundituko dut.

Etxean dauzkat emezortzi milla «peso» ortarako bear izan ezkerro (Zortzireunen bat kilo). Gure ondasunak amaituko dira, gure ekiña... sekulan! Ta norbait susmurrean sumatzen badut, neronek zatzakatuko dut! Ta kanpotik datorren laguntza ez bada irixten, oraindik aski gera gure uria gordetzeko etsaiek mendetik!

Baita, Condé prantzez gudar-buruak... mezularia igorri ere. «Kontuan eduki zazu, adiskide, alaba ezkongai duzula... ta ezpadezu amor ematen... urian sartzetakoan, gudarien eskuetan geldituko dala beraren gorputz ederra».

«Nork dio olakorik garaille izan baiño lenago! Nere ezpata gertu daukat etxekoen oorea gordetzeko!

Irurogei ta bost egun zeramazkiten esituak, eta Iraillaren laua, ain-xuxen, urrengo eguna. Garaipena iritxi naiez, prantzez-ozteak ikaragarritzko indarrez ekin! Arresi-murruak eroriak alderdi batzuetan eta onela ezin kontalako matxinada sortu zan. Aal zuten moduan; arrika, eskuka, makilka, labainka, tiroka... autsikika! Bazirurin... azkena zala; ta Ondarribiak oraindik beste lau egunean eutsi. Lenago il!

AMAIA

Eta Iraillak zortzi—Amabirjiñaren Kaiokunde egunean gudarozte adiskidea Guadalupetik beera etorri. Jakiña, kanpo-librean indarrak neurtu ziran. Orain, igeska dijoa etsaia. Bi millatik paseak itto ziranak, beste bi milla katigu... Gurenda! Garaitza! Besarkak, negarrak, Gora, Gora Ama Guadalupekoa!

Alkate baten gizatasuna, ta jatortasuna goraiatu nai nuen. Badakizu bere izena: DIEGO DE BUTRON. Ondarribian... itxas-errian, bide-xabal batek darama bere izen ospetsua.

Gaur, intzirak galdu ziran. Eltxoak izkutatu. Ainarak gutxitu...

Alkateak...

Eta, ordu ezkeroz ospatzen dugu oroitzapena. Ta Erriak onela abestutzen du;

Esitua izandu zan
bein batez Ondarribia.
Zugan zeukan konfiantza,
Guadalupeko Mária.
Gariturikan etsaia,
libratu zan gure erria.
Kristauen Ama gozoa,
gutzaz erruki zaitea.